Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Escanea el código y descárgate la
Memoria de Transparencia

GARDENTASUNA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN
2017. URTEKO MEMORIA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

01 SARRERA 03 / 05

02 JARDUERA-ARDATZAK 07 / 35

02.1 BIZKAIA, LURRALDE GARDENA 08 / 14

02.2 PUBLIZITATE AKTIBOAREN EDUKIAK SUSTATU ETA HOBETZEA 15 / 16

02.3 GARDENTASUNA KUDEAKETA GAKOKO PROZESUETAN 17 / 23

02.4 KOMUNIKABIDE BERRIAK HOBETU ETA EZARTZEA 24 / 24

02.5
GARDENTASUNA KUDEATZEKO BARNE-GAITASUNAK 25 / 28

02.6
GARDENTASUNAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA 29 / 35

03
ONDORIOAK 37 / 39

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GARDENTASUNA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN
2017. URTEKO MEMORIA

01

Sarrera

Memoria hau Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Araua (otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua) betez argitaratu da, eta, bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak 2017. urtean zehar, hau da, Gardentasunari buruzko Foru Plana 2017-2019 delakoa gauzatu den lehen urtean zehar gardentasunaren arloan egin duen lana islatzen da. 2016ko lehen memoria argitaratzean hasitako bidearekin jarraitzen du 2017ko memoriak, eta, era berean, Gardentasunari buruzko Planaren ebaluazioa sartzen du haren ardatz antolatzaile gisa.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2017ko martxoaren 14an onartu zuen hiru urteko plan hau, eta berau da ibilbide-orria Bizkaia lurralde garden bihur dadin. Izan ere, irizpide argiak eta ekintza-lerro zehatzak ezartzen ditu, Bizkaiko Foru Aldundiok xede hori lor dezan. Planean garatutako ekintzak sei ardatzetan egituratzen dira. Ardatz horien helburuak dira, hain zuzen, Bizkaian gardentasunaren kultura sortzea, publizitate aktiboaren edukiak hobetzea, Aldundiaren kudeaketa-prozesuetan gardentasuna sartzea, komunikabide berriak martxan jartzea, barneko prestakuntza garatzea, eta ebaluazioa eta jarraipena gauzatzea.

Hurrengo orrietan zehaztu dira, bai 2017an zehar garatutako jarduera nagusiak, bai plana hedatzeko orduan egindako aurrerapenak.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN 2017. URTEKO MEMORIA

02

Jarduera-ardatzak

2.1
BIZKAIA, LURRALDE GARDENA

Bizkaiak lurralde garden gisa duen posizioa finkatzea da lehen ardatz honen helburua. Horretarako, Foru Aldundian bertan nahiz Bizkaiko erakunde publiko eta pribatu guztietan sustatu behar da gardentasunaren printzipioa. Plana gauzatu den lehen urte honetan zehar, honako ildo hauek jorratu dira:

Udalei laguntza eman zaie, gardentasuna ezarri eta bide horretan aurrera egiteko orduan.
Nagusiki arlo hauetan eman zaie laguntza udalei eta beste toki-erakunde batzuei: kontratazio publikoan, datu-babesean, eta gardentasunaren atari berrien argitalpenean. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartu du ELoGE batzordean (European Label of Governance Excellence).

Kontratazio publikoa

Bizkaiko udalei sektore publikoko kontratuen lege berriak ezartzen dituen eskakizunetara egokitzen laguntze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak, azaroan, jardunaldi tekniko bat antolatu zuen Bizkaiko udalerrientzat. Jardunaldi hori, zehazki, José María Gimeno Feliú adituak eman zuen, Zaragozako Unibertsitateko administrazio-zuzenbideko katedradunak. Jardunaldia Bizcaytik Fundazioan izan zen, eta, bertan, Gimeno Feliúk Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren berrikuntza nagusiak azaldu zituen; besteak beste: zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua eta zenbatekoen arabera publizitaterik gabe negoziatutako prozedura ezabatu izana, prozedura ireki sinplifikatua sartu izana, eta abar. Halaber, horrek guztiak toki-administrazioei nola eragiten dien ere azaldu zuen.

Bestalde, bilera hartan bertan, Biscaytik-ek garatu duen lizitazio elektronikoko irtenbide teknologikoa ere aurkeztu zen, lurraldeko toki-erakundeetan martxan jarriko dena. Tresna segurua, frogatua eta erakundeontzat kosterik gabea da, eta udalen artean egon daitezkeen hutsune teknologikoak arintzen laguntzen du. Tresna honek lizitazio elektronikoko plataforma bat eskaintzen die udalei, lizitatzaileen eta erakunde publikoaren artean komunikazioak egin ahal izateko, modu seguru eta elektronikoan, kontratuei buruzko lege berrian ezarritakoaren arabera.

Datuen babesa

Hirugarren urtez, jarraian, abenduaren 14an BiscayTIKen Toki Administrazioentzako Datu Babeserako V. Jardunaldia ospatu zen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin lankidetzan. Jardunaldi horretara Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetako 20 ordezkari baino gehiago bertaratu ziren. Jardunaldi hartan aztertu ziren, zehazki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako Datuak Babesteko Araudi Orokor berriaren ondoriozko betebeharrak. Araudi hori nahitaez bete beharko da 2018ko maiatzaren 25etik aurrera.

Udalen eta beste toki-erakunde batzuen gardentasunaren atariak

2017. urtean, udalen eta beste toki-erakunde batzuen gardentasunaren atari berriak argitaratu dira Udala Zabaltzen online plataforman; BiscayTIK fundazioak diseinatu du plataforma hori, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko.

- 2017. urtean, Udala Zabaltzen ekimenaren barruan sinatutako hitzarmenak: 5 hitzarmen (Arratiako Mankomunitatea, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa, Nabarniz, Ondarroa, Sopuerta).

- Udal Zabaltzen ekimenaren hitzarmenak, guztira: 78

Atari berri bakoitzerako, aurretik aztertu zen toki-erakundeak zer informazio zuen lehendik bere web orrian eta zer eduki berri gehitu behar zen. Aldi barean, gardentasunaren ataria abiarazi zen, bere berezitasun guztiekin, eta, behin erakundeak adierazleen informazioa izan zuenean, informazioa berrikusi eta atarian argitaratu zen.

Gainera, aurretik argitaratutako atariak ere berrikusi egin ziren (2016. zein 2017. urteetan argitaratutakoak). Berrikuspena egiteko, kontuan hartu ziren ofizioz edo toki-erakundeak eskatuta argitaratutako adierazleen alderdi kualitatiboak eta kualitatiboak. Horren guztiaren ondorioz, hobetzeko gomendio batzuk sortu ziren, erakundeari bidali eta harekin komentatu zirenak.

- Argitaratu ziren gardentasunaren atariak: 13 atari (Ajangiz, Aulesti, Berango, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Ea, Gamiz-Fika, Igorre, Mañaria, Urduña, Portugalete, Santurtzi, Trapagaran, Zaldibar)

- Berrikusi eta hobetu ziren gardentasunaren atariak: 55

- Atariak direla-eta eginiko aurkezpen publikoak: 9 prentsaurreko (Portugalete –bi egin ziren-, Erandio, Sondika, Zaratamo, Elorrio, Loiu, Abanto-Zierbena, Mañaria)

- Argitaratu diren gardentasunaren adierazleen kopurua: 2.512

- Erakundeek batez beste argitaratutako gardentasunaren adierazleak: 46

2017. urtean, Udala Zabaltzen ekimenaren barruan, dispositibo mugikorrentzako app-aren bertsio berri bat abiarazi zen, interfazea eguneratu eta funtzionaltasun berriak gehitzen zituena (mugikorren bidezko topaketa birtualak, udal informazioa gehitzeko XML fitxategiak...).

- Argitaratutako app berriak: 8 app (Elorrio, Erandio, Loiu, Mañaria, Portugalete, Sondika, Ugao-Miraballes, Zaratamo)

- Berritutako app-ak: 13

Informazio publikoa eskuratzeko eskabideari dagokionez, 2017. urtean, legez aztertu zen, eta beste izapide baten moduan ezarri zen toki-erakundeen egoitza elektronikoan. Eskabidea egin zuten erakundeek egoitza-elektronikoa abiarazi zen izapidea.

- Informazio publikoa eskuratzeko eskabidearen izapidea beren egoitza elektronikoan argitaratu duten erakundeen kopurua: 36

- Informazio publikoa eskuratzeko eskabidea dela-eta eginiko izapideen kopurua: 10

ELoGE Batzordeko partaidetza

Gobernantzaren gaineko Europako Bikaintasun Zigilua (ELoGE) Europako Kontseiluak ematen duen aintzatespen bat da. Horretarako, gobernantza onaren 12 printzipioak aztertzen ditu, tartean: gardentasuna, partaidetza, jarrera etikoa, efikazia eta efizientzia, finantza-kudeaketa osasungarria, berrikuntza, berdintasuna, giza eskubideak eta aniztasuna.

Eudelek sustatutako proiektu pilotuan, Bizkaiko eta Gipuzkoako 14 udalerrik, beren borondatez, 97 adierazleetan (Benchmark) oinarritutako autoebaluazio-prozesu zorrotz bat betetzeko konpromiso politikoa hartu dute. Hala, udalerri bakoitzeko tokiko gobernuaren "heldutasun-maila" neurtu dute. Zigilua lortzeko, 3 puntu edo gehiago izan behar ziren 12 oinarrietako bakoitzean. Halaber, bi galdetegi egin dira: bat gobernu eta oposizioko zinegotziei zuzendua, eta, bestea herritarrei zuzendua.

ELoGE Batzordea proiektuan eskuratutako emaitzak eta ondorioak balioztatzen dituen organoa da, eta berak proposatzen ditu ELoGE zigilua eskuratuko duten hautagaitzak. Horretarako, berariaz aztertzen dira proiektuko emaitzen txosten orokorra eta banakako balorazio-txostenak (zigilua eman ala ez proposatzen dutenak), udal partaide bakoitzeko Idazkaritza Teknikoak igorriak. Proiektua garatzean lortutako emaitzak berrikusi ondoren, ELoGE Batzordeak honako erakunde hauei zigilua ematearen aldeko proposamenak onartu zituen:

- Basauriko Udala
- Irungo Udala
- Urnietako Udala
- Ermuko Udala
- Leioako Udala

Diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuei laguntza eman zaie, publizitate aktiboko betebeharrak bete ditzaten.

1/2016 Foru Arauaren arabera, Foru Aldundiaren diru-laguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuek gardentasunez jokatu behar dute herritarren eta, oro har, interes-taldeen aurrean. Arauaren aplikazio-eremuan sartzen diren erakunde pribatuei gardentasunez jokatzen laguntzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Gardentasunaren Gidaliburua idatzi du. Hemen eskuragarri: www.gardentasuna.bizkaia.eus/es/entidades-privadas. Erakunde pribatuek bete behar dituzten betebeharren esparru sinple eta argia ezartzen da gidaliburuan, eta, halaber, gai honetan gehiago zehaztu behar diren alderdiei buruzko hainbat irizpide azaltzen dira. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak espazio bat prestatu du bere Gardentasun Atarian bertan, Bizkaia Gardena delakoan, bitarteko elektronikorik ez duten, gizartearen edo kulturaren intereseko xederen bat duten eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua duten erakunde pribatuen gardentasun-txostenak argitaratzeko.

Horrez gain, erakunde pribatuentzako Gardentasunaren Gidaliburuaren berri emateko, urtarrilean eta otsailean informazio-jardunaldiak antolatu ziren kolektibo zabalen artean, funts publikoak jasotzen dituzten lurralde historikoko agente sozio-ekonomikoen eremuan gardentasuna sustatzen laguntzeko. 2017an, bi jardunaldi tekniko garatu ziren gizarte-eremuko erakundeekin. Hirugarren sektoreko erakunde nagusiak izan ziren partaideak, eta, bertan, betebehar horiek betetzen laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiak dauzkan laguntza-tresnak azaldu ziren. Halaber, publizitate aktiboaren gaineko jardunbide onen adibideak deskribatu ziren. Lantegi Batuak eta Elkarbanatuz enpresetako ordezkariak elkarlanean aritu ziren, eta beren erakundeetan gardentasunaren eta publizitate aktiboaren eremuan garatutako lana eta esperientzia azaldu zituzten.

Gardentasunari buruzko foroetan parte hartu da, Bizkaia lurralde garden bihurtzeko.
Gardentasunaren alde lan egiten duten erakunde publiko, enpresa eta unibertsitateek antolatutako biltzar, topaketa edo/eta jardunaldietan parte hartzea tresna gakoa da esperientziak ikasi eta trukatzeko. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikuspegia gai honetan erreferenteak diren agente nagusiekin egiaztatzeko balio du.

2017an zehar, Bizkaiko Foru Aldundia hizlari aritu zen honako jardunaldi hauetan:

- Gardentasunaren Nazioarteko II. Kongresua. Madrilgo Complutense Unibertsitatea, irailaren 27 eta 29a. Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusiak Bizkaiak gardentasunaren eremuan duen esperientzia aurkeztu zuen.
- Kontratazio Publikoaren Behatokiaren I. Urteko Kongresua. Madrilgo Complutense Unibertsitatea, abenduaren 12 eta 13a. Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusiak "Gobernu digitala eta kontratazio publikoa: politika publikoaren zerbitzura dagoen teknologia" mahai-inguruan parte hartu zuen.

Halaber, honako topaketa hauetan izandako partaidetza nabarmendu behar da:

- Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko topaketa martxoaren 17an antolatu zen, gardentasunaren gaineko lan-ildoak ezagutu eta partekatzeko, eta elkarlanean aritzeko bideak aztertzeko.
- "Espainiako negozio-sorrerari eta datu irekiei buruzko txostena" aurkezteko ekitaldira bertaratu zen. Urriaren 23an ospatu zen, Berrikuntzarako Cotec Fundazioaren eskutik.
- Aporta topaketaren 7. ediziora bertaratu zen. Topaketa hori red.es sareak antolatu zuen, Energia, Turismo eta Agenda Digitala Ministerioarekin eta Ogasun eta Funtzio Publikoa Ministerioarekin lankidetzan, honako lelo hau erabilita: *"Datuen balioa ekosistema orokorrean"*. Urriaren 24an izan zen.

2.2
PUBLIZITATE AKTIBOAREN EDUKIAK SUSTATU ETA HOBETZEA

Ardatz honen helburua publizitate aktiboaren edukiak kuantitatiboki eta kualitatiboki aberastea da. 2017. urtean zehar, datuen irisgarritasunean, ulergarritasunean eta berrerabiltzeko aukeran hobetzeko egin da lan. Horretarako, honako ekintza hauek garatu dira:

Publizitate aktiboko eduki berriak sartu dira Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere erakundeen gardentasunaren atarian.
Bizkaia Gardena atari bizia izan behar da, hau da, etengabe eguneratu eta hobetzen dena, bai bere edukietan, bai edukiak ikusteko moduan. Horrenbestez, aurten atariari diseinu berriago bat eman zaio, web instituzional berriarekin (www.bizkaia.eus) bat, aurreko egiturari eutsiz, informazioa eskuratzea erraza izan dadin.

Gainera, aurreko eremuen barruan informazio-atal berriak sortu dira, orain arte Bizkaia Gardenan argitaratzen zen informazioa osatu eta hobetzeko; besteak beste, foru-erakundeei edo Urteko Arau-Planari buruzko datuak.

Argitaratutako informazioa ulerterrazago bihurtzeko elementuak sartu dira

Atariaren diseinu berria ezartzean, argitaratutako eduki guztiak berrikusi dira. Halaber, azalpen-testuak sartu dira, informazioa ulerterrazagoa izan dadin. Bestalde, lan-lerro berri bat ireki da, datuak ikusteko modua hobetu dadin. Horretarako, jardunbide onak identifikatu dira, eta edukiak modu didaktikoago, interaktiboago eta bisualagoan sortu eta argitaratu ahal izateko tresnak ezarri dira.

Publizitate aktiboko edukietan berrerabil daitezkeen formatuak areagotu dira

Informazioa emateko erabiltzen diren formatuak berrikusi dira, eta berrerabilpenaren ikuspegitik hutsuneak eduki ditzaketen formatuak identifikatu dira. Formatu horien ordez beste batzuk jarri dira, horietan jasotako informazioa berrerabiltzeko aukera ematen dutenak. Open Data Bizkaia atari berria herritarrei datu argiago, irisgarriago eta berrerabilgarriagoak emateko baliagarri izan dadila lortu nahi da, besteak beste goi-mailako lanpostuen zerrendari buruzko datuak tartean direnean.

Publizitate aktiboa kudeatzeko eredu deszentralizatua finkatu da

Bizkaia Gardena atarian nahiz foru-erakundeen gardentasun-atarietan argitaratu beharreko informazioa kudeatzeko orduan, kudeaketa-eredu deszentralizatua ezarri zen. Eredu hori martxan jartzeko, iazko urtean zehar prozedura eta metodologia erkideak zehaztu eta ezarri genituen, kudeaketa deszentralizatua antolatze aldera. Bai publizitate aktiboaren dimentsioan, bai informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen dimentsioan. 2017. urtean zehar hainbat hobekuntza egin dira, gardentasunaren atarian argitaratutako informazioa une oro egon dadin eguneratuta.

2.3 GARDENTASUNA KUDEAKETA GAKOKO PROZESUETAN

Ardatz honen helburua gardentasunaren gainean sakontzea da, kudeaketa gakoko prozesuetan: kontratazioa, aurrekontuei buruzko informazioa, zerbitzuen prestazioa eta araudiaren prestaketa. 2017an zehar, hainbat jarduera egin dira honako gai hauetan:

Gardentasunaren dimentsioa finkatu da kontratazio publikoan

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/24/EB eta 2014/25/EB zuzentarauen arabera (kontratazio publikoari buruzkoak), 2018ko urriaren 18a da azken eguna kontratazio-prozesu guztiak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez egin daitezen.

Kontratazio Elektronikoa ezartzea gakoa da, papera ordezkatzeaz gain, gardentasuna, eraginkortasuna, konfidentzialtasuna, gastu publiko gutxiago, enpresentzako erraztasun gehiago eta kontratazio publikoetarako segurtasun gehiago eragingo baititu. Kontrataziorako plataforma elektronikoak erabiltzean, halaber, etapa guztietan informazioa eskuratzeko prozesuak kontrolatu daitezke, izapideak arintzen laguntzen da, eta enpresa txiki eta ertainen partaidetza sustatzen da.

Zuzentarau berrietan ezarritako lizitazio berria aurrera pausu bat eta une gogoangarri bat da kontratazio publiko europarrean. Horretarako, informazio-sistemak eta tresnak modernizatu behar ditugu, ezarritako epeetan, gardentasun gehiago lortu, kontratazio-prozesuetan eraginkortasuna hobetu eta eskumenak areagotzeaz gain, inflexio-puntu bat ezartzeko kontratazio publikoaren kudeaketan.

Bizkaiko Foru Aldundiak, aldaketa horrek eragiten dituen ondorioen jakitun, prozesu horiek egokitzeko eta bidezko neurriak hartzeko lan egin du, egoera berrietara egokitu eta kontratazio elektronikoko prozedura ezar dadin bere fase guztietan.

Lehen fase batean, eta Europar Batasunak kontratazio-zentraletarako finkatutako epeari (2017ko apirilaren 18a) aurrea hartuz, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralerako lizitazio elektronikoko sistema bat ezarri zuen. Sistema horri esker, errazagoa eta eraginkorragoa da orain esparru-erabakiak lizitatzea askotariko gaietan (bulegoko materiala, posta-zerbitzuak, energia elektrikoa, eta abar), Zentralera atxikitako foru-erakunde eta toki-erakunde guztientzat (18 eta 91, hurrenez hurren).

Bigarren fasean, lizitazio elektronikoa Bizkaiko Foru Aldundiko prozedura irekiko lizitazioetara hedatu zen. Horrenbestez, 2017ko uztailaren 12an eskaintzak elektronikoki aurkezteko epea ireki zen.

2017. urtean, 137 kontratazio-espediente abiarazi ziren (69, Zerbitzuen Atalean; 26, Horniduren Atalen; 33 Kontratazioko Obren Atalean, eta 9 esparru-akordio, Kontratazio Zentralean). Haietatik, 19 izapidetu zituen lizitazio elektronikorako plataformak, hau da, 2017ko kontratuen % 13,87.

Bestalde, urriaren 30ean, Bizkaiko Foru Aldundia Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformara batu zen. Plataforma horrek EAEko administrazioek egindako kontratazio publikoei buruzko informaziorik zabalena eskuratzeko aukera ematen du.

2017. urtearen zehar Toki-erakundei laguntza eman zaie kontratazio arloko arautegira egokitzeko. Hona hemen haren mugarri nagusiak:

- Lizitazio elektronikorako plataformaren erabilera integratzearen alderdi funtzionalari eta eraginari buruzko azterlana egin zen. Toki-erakundeen eremua. Ondoren, integrazio horren kontratazio publikoa egin zen, eta urtean zehar ezarri zen integrazioa.

- Zerbitzua emateko, hitzarmenak egin ziren toki-erakundeekin.
  Lizitazio elektronikoa: 30 hitzarmen

- Azaroan, zabalkunde-jardunaldi bat egin zen, erakundeei erakusteko lizitazio elektronikorako plataforma eta legearen ezaugarri berriak.
  Zabalkunde-jardunaldian egondako erakundeen kopurua: 60
  Zabalkunde-jardunaldian egondako pertsonen kopurua: 105

- Abenduan, erakunde pilotu batzuekin hasi zen lanean, plataformaren funtzionamendu ona lortzeko probak egiteko eta parametroak doitzeko, 2018. urterako aurreikusita baitago plataformaren ezarpen masiboa.
  Erakunde pilotu: 5 erakunde (Gordexola, Iurreta, Gautegiz Arteaga, Güeñes eta Abanto-Zierbena)

Aurrekontuei buruzko informazioan aurrera egin da gardentasunaren dimentsioan.
Aurrekontuei buruzko informazioa da funtsezko informazio-eremuetako bat, foru-gobernuak beregain hartzen dituen jarduerak eta konpromisoak ulertzeko orduan. Ezinbestekoa da, beraz, modu zehatz eta egiazkoan aurkezteaz gain, argi eta garbi eta denek ulertzeko moduan azaltzea.

Filosofia horri jarraikiz, urteko lehen seihilekoan Bizkaia Gardena atarian, ekonomia, finantza eta ondareari buruzko informazioaren eremuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrei buruzko azalpen zehatzago bat argitaratu da (Bizkaiko Foru Aldundiko eta Foru Sektore Publikoko aurrekontuak barne, bertan sartzen direlarik erakunde autonomiadunak, enpresa-erakunde publikoak, merkataritza-sozietateak eta foru-fundazioak), beren edukiari eta aurrekontuak egiteko eta onartzeko prozedurari buruz.

Atal horren barruan, "Aurrekontua azalduko dizugu. Nola banatzen da bildutako dirua? Zertan gastatzen da?" agiria argitaratu da. Bertan, modu erraz eta grafikoan ikus daitezke bildutako diruaren jatorria eta jomuga. Halaber, ulermena errazteko, hainbat aurrekontu-adierazle jaso dira, besteak beste zerga-autonomia eta zorpetze erlatiboa.

Azkenik, beste urrats bat eman da, eta aurrekontuei buruzko informazioa sartu da Open Data Bizkaia proiektuko lehen fasean. Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazioen datu irekiak islatzen dituen atari hori 2018ko hasieratik dago martxan.

Gardentasunaren dimentsioa garatu da zerbitzuak eman eta ebaluatzeko orduan

1/2016 Foru Arauaren 10. artikuluaren arabera, zerbitzu-gutunak, halakorik badago, modu irisgarri, ulergarri eta ahal dela grafikoan argitaratu behar dira, bai eta zerbitzu publikoen betearazpen-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezkoa den estatistika-informazio oro ere.

Horrez gain, Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Plana 2017-2019 delakoaren arabera, gardentasunaren dimentsioa garatuko da zerbitzuak eman eta ebaluatzeko orduan, eta, horretarako, zerbitzu-gutunak egin eta ebaluatuko dira.

Ondorioz, bigarren seihilekoan zerbitzu-gutunak garatzeko proiektua hasi da. Lehen fasean, guztira 6 zerbitzu-gutun prestatzeko lanak egin dira:

1. Foru Liburutegia (Euskara eta Kultura Saila).
2. Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak (Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila).
3. Garbiker-eko garbiguneak (Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila).
4. Arreta Goiztiarreko Zerbitzua (Gizarte Ekintza Saila).
5. Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala (Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila).
6. Hartutako Kalte Zerebrala tratatzeko eguneko zentroak: Bekoetxe eta Lurgorri (Gizarte Ekintza Saila).

2018an zehar amaituko da proiektu pilotu hau, dagozkien webgunetan eta gardentasunaren atarian sei gutunak argitaratzen direnean. UNE 93200:2008 izan da araudi-esparru erreferentea, garatutako zerbitzu-gutunak ondoren ziurtatu ahal izateko. Era berean, foru-administrazioan eta foru-sektore publikoko erakundeetan zerbitzu-gutunak egiteko gida metodologiko eta kudeaketa-eredu bat gauzatuko dira.

Gardentasunaren dimentsioa hedatu da araudia egiteko orduan.

Urtarrilean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretua onartu zen, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena. Bertan, hainbat neurri aurreikusi dira, ukitutako interesek araudien prestakuntza-prozesuetan parte har dezatela sustatzeko, karga burokratikoak murriztu eta araudia sinpletzeko, gizarteak eskatzen dituen beharrizanei aurre egin ahal izateko araudi-erantzunak arintzeko, eta araudian kalitate handiagoa lortzeko.

3. artikuluak *(erregulazio onaren printzipioak)* 1.f) apartatuan honela definitzen du herritarren parte-hartzearen printzipioa: "Herritarrek modu aktiboan parte hartu ahal izango dute Bizkaiko Foru Aldundian egiten diren xedapen arauemaile orokorrak egiteko prozesuetan, foru dekretu honetan ezarritako bitartekoen bidez". Halaber, www.bizkaia.eus webgunearen bidez, Bizkaia Irekia atalean, herritarrek Bizkaiko Foru Aldundi osoko partaidetza-prozesuetan parte har dezakete.

Aipatu Dekretuak 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero onartu eta argitaratuko du arau-plan bat, hurrengo urteko ekitaldian onartzeko proposatuko diren araugintza-ekimenekin eta erregelamenduzko ekimenekin.

2018. urteko arau-plana 2017ko abenduaren 19ko Foru Erabakiaren bidez onartu zen, eta, bertan, honako datu hauek eskuratu daitezke: xedapenaren izena eta maila, lortu nahi diren helburu orokorrak, bai eta aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak onartzeko epeak eta betetzeko baldintzak ere. 2018ko urteko arau-planean guztira 154 xedapen orokor jasotzen dira.

Urteko Arau Plana gardentasunaren atarian argitaratuta dago, herritarren esku. Bere ebaluazioa ere bertan argitaratuko da.

Bestalde, Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteak Bizkaiko foru-araudi bateratuaren proiektua sustatu du.

Ogasun eta Finantza Saila, bere garaian, lehenengoa izan zen zerga-araudi foral bateratua ezartzen Bizkaian, eta 2017. urtean erabaki du aurrerapen garrantzitsu hori foru sail guztietara eta foru-araudi osora zabaltzea, foru-araudi bateratu global bat lortuko bada; alegia, asmoa da zerga-araudi bateratua bere horretan utzi eta baterakuntzan sartzea gainerako arloetako araudiak.

Araudi bateratuaren proiektua garrantzi handiko lorpen juridikoa da, bai eta garrantzitsua ere gure Foru Erakundearentzat. Izan ere, proiektuak hain garrantzitsua den segurtasun juridikoa eskaintzen digu foru-testu juridikoak kontsultatzean, eta eragin positiboa du administrazio barruko lanaren mailan zein «ad extra» mailan; izan ere, azken kasu horretan, proiektuari esker, herritarrei testuak eskuratzeko zerbitzu publiko bat emango zaie.

2017ko ekitaldian, ekintza hauetan oinarritu da proiektuan hasi eta burututako fasea:

1. Bizkaiko foru-erakundeetan sortu eta bateratu nahi den foru-araudiaren katalogo bat egitea (foru-arauak, foru-dekretuak eta foru-aginduak); informazio hori jasotzeko, foru-sailei eskatu zaie laguntza, haiek ondo ezagutzen baitituzte jardun-eremu material bakoitzeko gai espezifikoak.

2. Proiektuaren formatu-irizpideen aukeraketa: funtsean, dokumentazioa jasotzeko formatu teknikoa eta estilo-formatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko erabakia betetzeko (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko araugintza-teknikari buruzko gidalerroak onesten dira).

3. Web orriak argitalpenak egiten direnean izapideak ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) egiteko aukeren bideragarritasunari eta kostuei buruzko azterketa.



2.4
KOMUNIKABIDE BERRIAK HOBETU ETA EZARTZEA

Ardatz honen helburua gardentasunaren atarira sartzeko aukera unibertsala eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzea da, eta, horretarako, irisgarritasuna hobetu eta komunikabide berriak garatu behar dira.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (IPEE) erraztu eta hobetu da, bide telematikoak baliatuta.
IPEE baliatzeko zerbitzua hobetze aldera, egoitza elektronikoaren bidez, prozedura osatu da.
Hala, eskariaren ebazpenaren gardentasunari buruzko erreklamazioak egiteko aukera erantsi da Erreklamazioen Batzordean.

Horrez gain, egoitza elektronikoan salaketak egiteko prozedura ere erantsi da, Gardentasunari buruzko Foru Araua urratzen denerako.

2.5 GARDENTASUNA KUDEATZEKO BARNE-GAITASUNAK

Bizkaiko Foru Aldundiko barne-kudeaketan gardentasunarekiko konpromisoa guztiz bereganatu eta integratzea da ardatz honen xedea, eta, horretarako, honako ekintza hauek gauzatu dira:

Gardentasuna sartu da funtzionarioen prestakuntza-planetan:
Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioei gardentasunaren gaineko prestakuntza emateko, langileen aukeraketarako eta trebakuntzarako zerbitzua babestuz, proposamen batean jaso dira 2018. urtean zehar garatuko diren prestakuntza-ekintzak. Hona hemen:

- Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta informazio-eskariak izapidetzeko prozedurari buruzko informazio-saioak.
- Informazioa eskuratzeko eskubideari eta gardentasunari buruzko jardunaldiak.
- Gardentasunaren eta informazioa eskuratzeko prozeduraren gaineko karrerako prestakuntza.

Bizkaiko Foru Aldundiko langileek etengabe prestakuntza jasotzea funtsezko gakoa iruditzen zaigu, gardentasuna barneratzeko orduan arrakasta lortu nahi bada.

Gardentasuna sartu da Foru Aldundiak deitutako lan-eskaintza publikoetako gaien artean.
Gardentasuna sartuz gero kudeaketa publikoa eraldatu egiten denez, beharrezkoa da funtzionario izan nahi duten pertsonek gardentasunaren gaineko indarreko legedia ezagutzea, eta informazio publikoa jakin eta eskuratzeko eskubidearekin lotutako jakintza edukitzea; gure kasuan, zehazki, honako hau ezagutu beharko lukete: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.

Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia langileen aukeraketarako eta trebakuntzarako zerbitzuarekin lankidetzan aritu da, eta proposamen bat aurkeztu du, gardentasunaren gaia gehitu dadin lan-eskaintza publikora sartzeko planetan. Lankidetza horri esker, 2017ko ekainetik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiko kidegoetara sartzeko hautaketa-prozesuen deialdietako gaietako bat izango da gardentasuna; zehazki, urteko azken seihilekoan zehar egindako deialdietan sartu da: ekonomialaria, mendi-ingeniaria, ingeniari agronomoa, baso-agentea, liburutegiko laguntzaile teknikoa, delineatzailea, ingeniari tekniko industriala, medikua eta zerbitzuetako langilea tarteko.

Gardentasunari buruzko sentsibilizazioa eta barne-prestakuntza.
Atarileku da Bizkaiko Foru Aldundiko langile publikoen ataria, eta, bertan, "Gardentasuna" atala sortu da, Foru Aldundia osatzen duten pertsonen egunerokoan presente egoteko asmoz. Atari horretan jasotzen dira, hain zuzen ere, gardentasunarekin lotutako kontzeptu gakoak, besteak beste publizitate aktiboa edo informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Halaber, informazioa ematen da Gardentasunari buruzko Foru Arauaren eta Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Planaren (2017-2019) gainean. Halaber, espazio hori baliatu da Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzaren eskumenak eta Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza osatzen duten pertsonen taldeak azaltzeko, bai eta langile guztiei eremu horretan antolatzen diren jardunaldien berri emateko ere.

Gardentasuna kudeatzeko sistemaren iraunkortasuna.

Administrazio publikoetako datuak irekitzeko politikarekin bat, Aldundiak Open Data Bizkaia atari berria diseinatu du. Atari hori 2018. urtearen hasieratik egongo da eskuragarri, eta, bertan, Foru Sektore Publikoko datuak argitaratuko dira, formatu irekian. Halaber, Bizkaiko toki-erakundeei laguntza emango zaie, beren datuak irekitzeko aukera izan dezaten.

Open Data Bizkaia atariak informazio gordina jarriko du herritarren esku, Foru Aldundiak eta Bizkaiko administrazio publikoek kudeatuta, datu irekien formatuan. Hala, interesa duten hirugarrenek datu horiek ezagutu ahal izango dituzte, eta egokitzat jotzen duten tratamendua egin, informazio jakin bat ezagutzeko. Horri deitzen zaio, hain zuzen ere, berrerabilpen-prozedura.

Open Data Bizkaia ezinbesteko tresna da gardentasunaren sistemaren iraupena bermatzeko. Open Data proiektuaren lehen fasean, dagoeneko gardentasunaren atarian argitaratuta zeuden adierazle hauek aukeratu ziren, datu ireki gisa: ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa, ondareari buruzko informazioa (ondasun higiezinak eta ibilgailuen parkea), kontratazioa eta diru-laguntzak, eta informazio instituzionala. Adierazle horiek aukeratzean, honako hau zen asmoa: gardentasunaren ataritik zuzenean lotzea datu horietara, Open Data Bizkaiaren bidez, eta, hala, gardentasuna kudeatzeko sistemaren iraunkortasunean laguntzea. Iraunkortasun hori Open Data Bizkaiko datuak modu automatizatuan argitaratzeko prozesuen emaitza da.

Aurreikuspenen arabera, 2018an bigarren fasean lanean jarraituko da beren informazioa BiscayTIK bidez Open Data Bizkaia atarira gehitzeko interesa duten toki-erakundeen datuak eta Aldundiaren beraren eduki berriak sartze aldera.

Zer dira datu irekiak? Datu irekiak dira edozein pertsonak edozein helburutarako libre erabili, berrerabili eta banatu ditzakeen datuak.

Datua aktibo publikotzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundia "Bizkaia Open Data Estrategia" ezartzen ari da, non Open Data Bizkaia ekimenaren ataria funtsezko pieza egituratzailea den; hona hemen haren helburuak:

- Datuak ematea erabakiak hobeto hartzeko
- Gardentasunaren politikak indartzen laguntzea, hirugarrenek berrerabiltzeko datu erabilgarriak eskainiz
- Datuak berrerabiltzeko ekosistema baten sorrera sustatze
- Foru informazio sistema sendotu
- Irekitzearen eta berrikuntzaren aldeko aldaketa sustatzea erakundearen barruan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren datu berrien atari berriak aukera emango du 3 hizkuntzaz nabigatzeko: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Proposatutako soluzio teknologikoa datu irekien kudeaketan eta argitalpenean espezializatutako software libreko plataforma batean artikulatuko da: CKAN. Plataforma hori aukeratzeko arrazoia bat dator foru-erakundeak kode irekiko tresnak erabiltzeko politikarekin; gainera, proiektuaren helburua erabat betetzen da: herritarren esku jartzea Bizkaiko Foru Aldundiak dituen datuak, berrerabil daitezkeen formatuetan, eta erabiltzeko inolako mugarik gabe.
Eskuragarri jartzen den informazioa % 100ean berrerabili ahal izango da, eta kalitateari emango zaio lehentasuna kantitatearen aurrean. Horrez gainera, bete egingo ditu Europan sektore publikoko metadatuen arloan dauden estandarrak, hala nola DCAT-AP eta UNE178301: 2015 araua, hiri adimentsuentzako datu irekiei buruzkoa.
Atariaren diseinua, formatua moldagarria denez, interneten eta dispositibo mugikorren erabilerarako errealitate teknologiko berrietara egokituko da, eta informaziorako sarbide unibertsala lortu nahi izango du herritar guztientzat eta edozein dispositibotatik (finkoa zein mugikorra izan).

2.6 GARDENTASUNAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Onuragarria da kanpoko aintzatespenak edukitzea, Foru Aldundia erakunde garden gisa aintzatesten laguntzen baitute.

Nazioarteko Gardentasunak aldundietan egin zuen azken ebaluazioan (aldundien gardentasun-indizea, ALGAR), Bizkaiko Foru Aldundiak puntuaziorik altuena lortu zuen, eta, harrezkero, barne-mailan lanean jarraitzen dugu Bizkaia Gardena atariko publizitate aktiboko edukiak mantendu eta hobetzen. Horretarako, aldizkako azterketak, ausazko frogak eta zalantzen ebazpenak gauzatzen ditugu sailetan. Era berean, erakunde hau adi-adi dago Nazioarteko Gardentasunak administrazio publikoen artean sustatzen dituen azken aldaketa eta eguneraketen aurrean.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lankidetzarako eta Ekonomiaren Garapenerako Erakundeak (OCDE) baterako lan-lerro bat hasi dute, lurraldean honako proiektu hau garatzeko: *"Gobernu irekiaren erreformak Bizkaia hurbilagoa, modernoagoa eta arduratsuagoa lortzeko".*

OCDEk administrazioaren funtzionamendua hobetzea xede duten politika publikoen azterketa zehatza egingo du, eta, horretarako, modernizazio-irizpideak sartuko ditu, Bizkaian maila anitzeko gobernantza, gobernu irekia eta gobernu digitala sustatzeko. Azterketa horretan, berariaz nabarmenduko dira foru-gobernuaren lorpenak, hobetzeko aukerak identifikatuko dira, eta etorkizunean horiek martxan jartzeko jarduerak proposatuko dira.

Proiektuan bi fase gauzatuko dira:

- OCDEren azterketa, gobernantza publikoari buruz, Bizkaiko Foru Aldundiko gobernu irekiaren erreformetan oinarrituta:
  Bizkaiko Foru Aldundiak orain arte erdietsi dituen lorpenen eta administrazio publikoaren erreformen eremuan betetzeke dituen erronken azterketa zehatza egin behar da, gobernu irekiaren printzipioei jarraikiz. Horren harira, ezarritako helburuak lortzeko dauden oztopoak eta aukerak adierazi beharko dira.

- Gobernantza publikoari buruzko OCDEren azterketako gomendioen aurkezpena eta tailerrak: gobernu irekirako erreformak, Bizkaia hurbilagoa, modernoagoa eta arduratsuagoa lortzeko
  Gomendioak aurkeztu ondoren, horiek ezartzen laguntzeko tailer bat edo bi garatzea proposatu da. Tailer horiek batez ere enplegatu publikoei eta inplikatutako administrazioetako interes-talde nagusiei zuzenduko litzaizkieke, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan emango lirateke, nahiz eta jarduera osagarriren bat ere egin ahalko den OCDEk Parisen duen egoitzan.

Informazio publikoa eskuratzeko eskariak barne-mailan kudeatu eta horien epeak betetzea.
2017an zehar, informazio publikoa eskuratzeko 19 eskari erregistratu dira, nola Bizkaiko Foru Aldundiari zuzenduta, hala foru-erakundeei zuzenduta.

Jarraian, gehien kontsultatu diren gaiak zein izan diren eta eskariak nola ebatzi diren azalduko dugu:

Zein gai kontsultatu da gehien?



Iturria: bertan egina, 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako eskarietan oinarrituta.

Gehien kontsultatu diren gaiak informazio instituzionalari buruzkoak izan dira; zehazki, eskarien artean % 27. Bigarrenik, obra publikoei eta hirigintzari eta etxebizitzari buruzko informazio-eskariak gailendu dira; biak ala biak % 16 izan dira informazio publikoa eskuratzeko 19 eskarien artean.

Nola izapidetu dira jasotako eskariak?

2017. urtean informazio publikoa eskuratzeko 19 eskari jaso ziren guztira. Horietatik 4 eskari soilik ez ziren onartu izapidetzeko (kopuru osoaren gainean % 21). Nahiz eta jasotako eskari gehienak onartu egin ziren, lau eskari horiek Gardentasunari buruzko Foru Arauan araututako ez onartzeko kasuetan sartzen dira. Zehazki, eskatutakoa informazioa ez zeukaten organoei egindako eskariak ziren, edo eskari nabarmen errepikakorrak ziren.

IPEEn izapideak 2017an



Iturria: bertan egina, 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako eskarietan oinarrituta.

Nola ebatzi dira jasotako eskariak?

2017an informazio publikoa eskuratzeko jasotako 19 eskari horietatik bi soilik ukatu ziren. Ukatzeko arrazoiak Gardentasunari buruzko Foru Arauan araututako bi kasu dira: batean ekonomiaren eta merkataritzaren gaineko interesak zeuden tartean eta, besteak, datuak babesteko legediaren arabera, datu pertsonalak zituen.



Iturria: bertan egina, 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako eskarietan oinarrituta.

Kontsultak aztertzeko sistema bat ezartzea

2017ko martxoaz geroztik, Bizkaia Gardena atariak kontsultak aztertzeko sistema bat dauka. Bertatik hartutako datuen bidez, honako ondorio hauek atera daitezke:

2017. urtean zehar guzira 42.839 bisita erregistratu dira Bizkaia Gardena atarian. Erabiltzaileak, guztira, 14.354 dira, eta bisita gehienak erabiltzaile berriek egin dituzte (atarira egindako sarreren % 72,57).



Iturria: bertan egina, gardentasunaren atarian 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako bisitetan oinarrituta.

2017an zehar Bizkaia Gardena atarian gehien kontsultatu diren orriak honako hauek izan dira:

Gehien kontsultatu diren orriak	Sarrerak	Erabiltzaileak	Bisita enbakia	Erreboteak	Web-orrialdean batezbesteko denbora
Hasiera-Bizkaia Gardena	4.278	3.420	7.119	1.208	139
Goi Kargudunen informazioa	5.181	6.067	7.753	3.516	1.807
Langile zerrenda eta Estruktura organikoa	1.333	1.525	2.291	442	549
Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	250	247	289	227	170,4146341

Iturria: bertan egina, gardentasunaren atarian 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako bisitetan oinarrituta.

Bizkaia Gardena atarian gehien kontsultatu den informazioa informazio instituzionalari buruzkoa izan da (goi-mailako karguei buruzko informazioa + Bizkaiko Foru Aldundiko lanpostuen zerrendari eta egitura organikoari buruzko informazioa). Guztira, 6.514 sarrera izan dira.

Bizkaia Gardena atarian jasotako bisiten % 2 atariko bilatzailea erabiliz egindako informazio-bilaketak izan dira. Gehien erabili diren bilaketa-terminoak, bestalde, honako hauek izan dira: bizkaia, informazioa, zerga-erreforma, aurreproiektua, erakundeak, aurrekontua, lantik eta zerbitzuen katalogoa.

2017an zehar, Bizkaia Gardena ataritik guztira 36.838 agiri deskargatu dira. Horien artean gehien deskargatu direnak:

Deskarga-kopurua



Iturria: bertan egina, gardentasunaren atarian 2017-01-01 eta 2017-12-31 artean erregistratutako bisitetan oinarrituta.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN 2017. URTEKO MEMORIA

03

Ondorioak

Gardentasunari buruzko Plana martxan egon den lehen urte honek gaiari neurria hartzeko balio izan digu. Hala, jarduera-ardatz bakoitzean ekintza zehatzekin konprometitu gara; horietako batzuk amaitu egin dira, beste batzuk 2018an amaitzea espero da, eta gainerakoak 2018. urte honetan zehar hasi beharko dira, 2019an amaitzeko.

Memoria hau argitaratzean bete egin da Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunarekiko duen konpromisoa. Erakundearen jarduerari buruzko informazioa emateaz gain, izan ere, Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Plana 2017-2019 martxan den lehen urte honetan lortutako emaitzen ikuspegia ere jorratu da. Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak planean jasotako ekintzak sustatu eta koordinatu ditu, baina horiek ezartzea ezinezkoa litzateke Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko unitate guztiek parte hartu ez balute.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral